



## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2021EKO AZAROAREN 12KO BILERAREN AKTA

2021eko azaroaren 12an, 09:30ean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, modalitate ez-presentzialean, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 17.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontseilu honen ondoreetarako, akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartutakotzat hartuko dira (Araba kalea 45, Vitoria-Gasteiz), organoaren egoitza den aldetik.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakariak deituta, honako kide hauek bildu dira: Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea, lehendakaria; José Luis Quintas Díez jauna, lehendakariordea; Nerea Urien Azpitarte andrea, Hernando Lacalle Edeso jauna, Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna, batzordekideak.

Lehendakari andreak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak (Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak xedatzen dituenak) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeak (urriaren 1eko 40/2015 Legeak) ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, bertaratuek osoko bilkura eratu dute, lehendakari andreak deitutako bilkura egiteko eta alde zuzenetik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutuen 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Kontseilu honetara, lehendakari andreak baimenduta, honako hauek etorri dira: Ente Publikoko zuzendari nagusia, María Rosa Pérez Esquerdo andrea, eta Aholkularitza Juridiko zuzendariordea, Susana López Altuna andrea.



## GAI-ZERRENDA

**Lehen.**- Giza Baliabideen zuzendaria kargutik kentzea

Pilar Uriarte Brizuela andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen zuzendari kargutik kentzea, berak eskatuta, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Erabaki honek 2021eko azaroaren 14tik aurrera izango ditu ondoreak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

**Bigarrena.**- Giza Baliabideen zuzendaria izendatzea

Luisa Larrauri Ereñozaga andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen zuzendari.

Erabaki honek 2021eko azaroaren 15etik aurrera izango ditu ondoreak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

**Hirugarrena.**- Galderak eta eskaerak

Eta jorrazteko beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da 2021eko azaroaren 12an, 10:00etan.



**Stua.- Susana Lopez Altuna**

Idazkaria



**Stua.- Miren Gotzone Sagardui**

**Goikoetxea**

Lehendakaria

O.E.

